# <u>TXOSTENA (II)</u>

## *Galdeketaren emaitzak*

## *II. fasea: Lurralde-diagnostikoa*

Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren parte-hartze publikoko prozesuaren baitan eta Lurralde Diagnostikoaren argitalpenaz gero, galdeketa bat ireki zen online dokumentu horrek etorkizuneko lurralde-planerako zirriborratu dituen helburu nagusien eta ildo estrategikoen gaineko iritziak herritarrekin partekatzeko.

Galdeketak sozioekonomiaren, ingurune fisikoaren, paisaiaren eta ondare kulturalaren, hiri-ingurunearen, mugikortasunaren, ekipamenduen eta zeharkako alderdien gaineko galderak barne hartzen zituen, bai eta elkarrizketatutako pertsonaren profil pertsonalaren eta parte-hartze prozesuarekiko loturaren gaineko hainbat galdera ere. Halaber, parte-hartzaileei berrikuspen-prozesuaren (ekitaldi berriak, laburpen-dokumentuak, hurrengo kontsultak…) berri jasotzeko, harremanetarako datuak emateko aukera eskaintzen zitzaien.



# EMAITZAK

Guztira, **60** erantzun jaso ziren, #lurraldebizia galdeketaren online euskarriaren bidez.

## >Parte-hartze mota udalerrien arabera

Udalerriaren gaineko datuak zehaztu ziren galdeketak (56) soilik hartu dira kontuan grafiko hau egiteko




## >Parte-hartze mota elkarrizketatutako pertsonaren profilaren arabera

Jasotako erantzunak oinarri hartuta egindako grafikoak (60)

Galdeketa hau erantzun aurretik, ba al zenekien Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala (BMLPP) berrikusteko prozesua abian zegoela?




Ezagutzen duzu edo bisitatu duzu #lurraldebizia erakusketa ibiltaria?



Parte hartu al duzu parte-hartze prozesuko ekitaldiren batean?




Azken hilabeteotan, parte-hartze prozesuari buruzko informaziorik jaso al duzu edozein kanalen bidez?




Parte-hartze prozesua abian dago oraindik. Hurrengo ekitaldien gaineko informazioa eta gonbidapenak jaso nahiko zenituzke?



Jarraian, galdeketaren emaitzak banakatu egiten dira, gaien arabera antolatuta.

## > SOZIOEKONOMIA

Azken hamarkadan, nire udalerrian...
Jasotako erantzunak oinarri hartuta egindako grafikoa (59))




Zure ustez, zein da udalerriko biztanleriaren eta enpleguaren arteko harremana?



Zure aburuz, zein jarduera ekonomiko sustatu beharko lirateke zure udalerrian?




## > INGURUNE FISIKOA

Uste duzu eremu hutsak berroneratzea garrantzitsua dela eremu urbanizatuen hedapena kontrolatzeko?









- Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta hortik eratorritako arrisku naturaletara moldatzeko neurriak txertatzea

- Ibai-sistemaren kudeaketa eta ziklo hidrologikoaren kontrola hobetzea

- Lurralde barruan konexio iraunkorrak, hau da, alderdi sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak batera kontuan hartzen dituztenak, bultzatzea

- Gertuko nekazaritza-ekoizpena eta haren komertzializazioa laguntzea

- Interes bereziko fauna eta flora dituzten inguruneak babestea

- Ondare naturala eta ekosistemak mantentzea

## > PAISAIA ETA ONDARE KULTURALA

Zer deritzozu paisaia industriala eta hiriko paisaia berreskuratzearen eta kontserbatzearen balio historiko eta kulturalari?




Paisaia eta ondare kulturala sustatzeko bildutako ibilbide, konexio eta bestelako ideien artean, hauek dira aipagarrienak:

+ Bideak eta bidezidorrak hobetzea, gaitzea edo sustatzea:
    - PR bideak
    - Donejakue bidea
    - Bide tradizionalak
    - Homologatu ez diren bideak
    - Burdinbideak
    - Labarren ibilbidea
    - Burdin Hesia
+ Ibai-bideak eta Itsasadarraren inguruko pasealekuak zaintzea
+ Ondare industriala zaintzea eta indartzea
+ Udalerrien arteko oinezko eta bizikletazko konexioak hobetzea
+ Garraio publikoaren eskaintza hobetzea
+ Informazio-kartelak, ibilbide seinaleztatuak
+ Bisita gidatuak
+ Konektatutako ibilbide ezberdinen arteko sarea.

## > HIRI-INGURUNEA

Zure ustez, zenbat etxebizitza daude hutsik zure udalerrian? )




Azken hamarkadan, nire zona...



Nola baloratzen duzu zure udalerriko bizitegi-eskaintza?




## > MUGIKORTASUNA

Zure iritziz, udalerria ondo komunikatuta al dago ingurunearekin?



Hiri-udalerrien artean oinezko eta bizikleta bidezko konexioa hobetzeko jaso diren proposamenen artean, hauek dira aipagarrienak:

+ Bidegorri berriak
    - Itsasadarrean: bi ertzetan, eta haien arteko konexioak
    - Merkataritza-gune berrietan
    - Udalerriak konektatzeko (proposamena: Bilbao-Etxebarri, Bilbao-Barakaldo, Bilbao-Enkaterri, Bilbao-Santurtzi, Algorta eta Areeta)
+ Lehendik dauden bidegorriak elkarrekin lotzea eta ibilbideei jarraipena ematea.
+ Oinezkoentzako pasealeku atsegin eta seguruak
    - Itsasadarraren ertzetan eta oinezkoentzako zubietan
    - Udalerriak eta garraio-nodoak konektatzeko (proposamena: Areeta-Bilbao, Renfe Bilbao-Muskiz, konexioak Isuskizarekin)
    - Ibilbideak ibai-ibilgu, trenbide eta bide tradizionaletan zehar
    - Oinezkoentzat bideak egitea edo oinezkoentzako guneak zabaltzea (proposamena: Sabino Arana kalea, Mirafloreseko zubibidea)
+ Oinezko eta txirrindularientzako bide bateragarriak
+ 30 km/orduko eremuak, zoladura desberdina dutenak eta bidegorriekin
+ Bizikleta publikoak Bilbon
+ Atsedenguneak ibilbideen barruan

## > EKIPAMENDUAK



## > ZEHARKAKO ALDERDIAK

Klima-aldaketak kezkatzen zaitu?




Nire udalerrian...

